

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Pazienteen Eskolak doako sei tailer eskaintzen ditu urrian eta azaroan Iruñean, Arroitzan eta Villatuertan

*Alzheimerrean, gaixotasun kroniko eta baskularretan eta diabetesean oinarrituko dira*

Osteguna, 2016.eko urriak 6

Pazienteen Eskolak urrirako eta azarorako doako sei tailer programatu ditu Iruñean, Arroitzan eta Villatuertan, eta ondorengo gaiak jorratuko dituzte: "Alzheimerrean eta beste demenzia batzuk dituzten pazienteen zaintzaileak", "Gaixotasun kroniko garrantzitsu bat diagnostikatzen didatenean", "Elikadura osasungarria gaixotasun kronikoetan", "Elikadura diabetesean" eta "Gaixotasun baskular batekin

bizitzea". Tailerrak interesa duten pertsona guztientzat zabalik daude, eta jadanik izena eman dezakete 848 42 34 50 telefono-zenbakira deituta (08:00etatik 15:00etara) eta [www.escueladepacientes.navarra.es](http://www.escueladepacientes.navarra.es) webgunean.

"Elikadura osasungarria gaixotasun kronikoetan" izeneko lehenengo tailerra Villatuertan egingo da (osasun-zentroa) urriaren 10, 14, 17 eta 20 an, 17:00etatik 19:00etara.

"Alzheimerrean eta beste demenzia batzuk dituzten pazienteen zaintzaileak" izeneko tailerra Arroitzan egingo da (Emakumearen Zentroa. Barbarin errepidea, 38) urriak 17, 19, 24 eta 26an, 17:00etatik 19:00etara; eta Iruñean, azaroak 10, 16, 23 eta 30ean, ISPLNren institutuan (Zangoza kalea, 5), 17:00etatik 19:00etara, baita ere.

"Gaixotasun kroniko garrantzitsu bat diagnostikatzen didatenean" izeneko tailerra Iruñean antolatu da (ISPLN) urriak 27, azaroak 3 eta 8an, 16:30etik 18:30era. Egoitza horretan bertan egingo dira beste bi tailer: "Elikadura diabetesean", urriak 19 eta 26an eta azaroak 2 eta 9an, 17:00etatik 19:00etara; eta "Gaixotasun baskular batekin bizitzea", urriak 18, 25 eta 27an eta azaroak 3an, ordutegi berean.

### Pazienteen Eskola



Pazienteen Eskolak 6 tailer eskaintzen ditu Iruñean, Arroitzan eta Villatuertan.

Tailerrak Nafarroako Pazienteen Eskolako jarduera bat dira, 1988tik osasun zentro publikoetatik (bereziki osasun-zentroetatik) jadanik egiten diren osasuna sustatzeko ekintzak antolatzeko eta osatzeko sortu zena.

Haren helburua sortzen diren beharrak jorratzea da gaixotasun kroniko bat diagnostikatzen denean, ahalik eta autozaintza, osasun eta ongizate maila handiena lor dezaten pazienteek eta haren senideek. ISPLNren Osasuna Sustatzeko Ataletik koordinatzen da, eta bertan Lehen Mailako Arretako paziente nahiz profesional elkartek laguntzen dute.